

# BERRIGARA

115. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara


1993, uztailak 9

UDAL  
AURREKONTUAK  
ONARTU ZIREN  
ASTELEHENEAN  
EGINIKO  
EZOHIZKO  
BILKURAN

SAN  
KRISTOBAL  
JAIK  
ASTEBUKAERAN

KIROLAK

EUSKADIKO KIROL  
ESKALADA  
TXAPELKETA  
LARUNBATEAN  
BERGARAN



HERRIKO DENDARIAK  
ETORKIZUNAREKIN KEZKATURIK



UZTAILEAN TXARTEL  
HAU EKARTZEAN,  
MINOLTA RIVA MINI  
KAMARA, 1.000  
pzta. GUTXIAGO  
ORDAINDUIKO  
DUZU

GRUPO  
Image Center

## KIÑU

GRUPO  
Image Center

10. URTEURRENA!!  
OSPA EZAZUE GUREKIN

Barrenkale, 35 ☎ 76 58 05



UZTAILEAN TXARTEL  
HAU EKARTZEAN,  
CANON UC.10 BIDEO  
KAMARA, 5.000  
pzta. MERKEAGO  
KOSTATUKO  
ZAIZU

# TEMPRA STADIO



**ERAKUSKETA:**

Ibargarai 39  
BERGARA

**TAILERRAK:**

Antigua Auzoa  
ANTZUOLA

# Autoberezi **FIAT**

ZERBITZU OFIZIALA

## GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, ZUBIZARRETA, ZULUETA,  
ESTEFANO, LABORRA eta RUIZ DK.ak

- Azterketa ginekologiko osoak
- Minbiziaren aurretiko diagnostikoa
- Hauraldiaren kontrola
- Txekoak
- Bularreko gaitzen unitatea
- Mamografiak
- Antzutasuna
- Antisorkuntza
- Menopausiaren tratamendua
- Dietak
- Sudurra, eztarria, belarria
- Analisi klinikoak

**GUZTI HAU  
ARRASATEN  
BERTAN,  
URRUTIRAGO  
JOAN GABE!!**



Zerkaosketa, 17 etxabea.  
ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18

BERRIGARA astekaria  
Tfnua. eta Faxa: 76 03 97 Errotalde  
Jauregia, 20.570 Bergara

Argitaratzailea:  
Jardun Elkartea. Masterreka, 13  
Bergara. ☎ 76 08 19

Babeslea: Bergarako Udala.

Erredakzioa

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil  
eta Mikel Elkorobereibar.

Maketazioa:

E. Azkarate eta E. Mendibil.

Publikitate eta harpidetzak:  
Alex Azkarate eta Edurne Arenaza.  
☎ 76 03 97

Erredakzio-kontseilua:

Inaki Eraña, Gorka Elorza eta Alex  
Labaian.

Kolaboratzaileak: J. A. Mikeo,  
Estepan Plazaola, M. A.  
Elkorobereibar, J. M. Elexpuru, J.  
Oregi, A. Urzelai, M. Laskurain, N.  
Alzelai, A. Lete, J. A. Bengoa, M.  
Lizarralde, Monika Belastegi,  
Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña,  
Asier Madinabeitia, Josune Iñarra  
eta A. M. Goenaga.

Argazki laborategia:

Pol-Pol Argazki Taldea eta Kiñu.

Komikia eta marrazkiak: Josu  
Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)

Banaketa: Txantxangorri Taldea.

Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 3.300 ale.


Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain har-  
tzen aldizkarian adierazitako esanen  
eta eritzien erantzunik.



Aldizkari honek  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta  
Turismo sailaren laguntza jaso du

### PROTAGONISTAK

## HERRI OLINPIADAK

Bergarako Olinpia-  
datxoan BatzordeaK  
antolatutako IV. Herri  
Olinpiadak protagonis-  
tak izan ditugu aste ho-  
netan. Astelehenean  
hasi eta uztailaren 24ra  
bitartean, kuadrilek  
mahai-jokoak, water-  
poloa, ginkana, bolei-  
bola, herri-kirolak, ho-  
ckeya, mendi-bizikleta  
etab. luze bat tartekatu  
beharko dituzte, jai-gi-  
roan, parte hartzen du-  
ten 12 kuadriletatik  
trebeena nor den era-  
baki arte.

Aurtengoan, 120 la-  
gun inguru ari dira  
egunero betatik aurrera  
iragarritako probetan  
eta, ohizkoa den beza-



la, Olinpiadei bazkari  
herrikoi batekin eman-  
go zaie amaiera hu-  
rrengo larunbatean. Era  
berean, antolatzaileek  
eskerrak eman nahi  
dizkie laguntza eman  
duten herriko komer-  
tzio eta dendei.

**120 lagun inguru egunero-egunero  
kirol lehia**

### ITURRI ONETIK

## Udaletxeko teiltua, irailerako

Udaletxeko obrek aurrera darraite eta abuztu  
bukaera edota iraileko lehen egunetan teiltua  
jartzeari ekingo diote berrizte lanetan diharduten  
langileek. Teiltuak egurrezko soportea izango du  
eta gainetik teilak jarriko zaizkio estaltze gisa. Beraz,  
Artekale iraila amaiera zabaldu liteke trafikora.  
Xabier Gallastegi Hirigintza Batzordeko buruaren  
hitzetan, "obrak ondo baino hobeto doaz bai kalitate  
mailan eta bai finkatutako epei dagokienez".

### ESAN DUTE

"Nire aita da neure  
zaleturik onena,  
partidu guztietara  
etortzen da"

**RAMON  
AGIRREZABAL**  
Futbolaria  
KONTZEJUPETIK

"Ez dut uste egurra  
emateko ohiturarik  
daukadanik. Hori bai,  
eman behar denean  
eman egiten da eta  
kitto"

**ALATZ  
LARRAÑAGA**  
Futbolaria  
KONTZEJUPETIK

"Hurrengo  
denboraldari begira  
oraindik ez dakit zer  
gingo dudana.  
Futbola erabat uztea  
ere pentsatzen ari  
naiz, lesioekin lurjota  
gelditu naiz eta"

**XABI ARREGI**  
Futbolaria  
KONTZEJUPETIK

Atsedeen zentrua

# LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

## EZPELETA

etxea

Harizko eta kotoizko  
goimailako izara eta  
mantelak

Barrenkale 44 BERGARA

## ZUBIETA

elektragintza

✓ Motorren bobinak eta  
✓ Era guztietako instalakuntzak  
Kruz Gallastegi, 2 behea  
Tfnua: 76 23 48

## San Martzialak Iruditan

Bergararak gehien maite dugun jaia, San Martzialeko erromeria, jai giroan ospatu genuen joan zen igandean. Norbaitek dudarik bazuen ere, Eguraldiak ere bat egin zuen jai egun ederrarekin.



San Martin Plazan etxalferua jaurti eta gero, burdiaren igoerarekin eman zitzaion hasiera San Martzialeko erromeriari. San Martzialeko zelaietan, berriz, Berriotxoaren dantzaren erakustaldia egin zuen Xamatz dantza taldeak eta Egileor eta Narbaizaren bertso saioaren ondoren, ohizko aurrekua dantzatu zen. Bien bitartean, Julian Retegi eta Ladis Galarzaren arteko pelota partidua gertutik jarraitzeko astia ere hartu zuen batek baino gehiagok...



**TOKI-ONA**  
Bodegoia-Taberna

Eguneroko janariak / Txitxizotzak  
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi 1, Tfnoa: 76 39 53

**AGOITZ**  
Tapizdenda

San Lorenzo 25, Tfnoa: 76 11 58

BERGARA

**DENA**  
**100**etik  
**ZURE OPARIENTZAKO**

Simon Arrieta, 3

## LABUR-LABUR

▼ Igandean San Martzialen jokaturako Txinga Erute txapleketan **Josu Zeziaga** gertatu zen garaile, eskuetan 50 kilotako txinga bana hartuta 4 plaza pasatxo egin zituen. **Angel Iñarra** bigarren sailkatu zen. Sokatiran, bestalde, **Txantrea** taldea nagusitu zen gizonezkoen taldean eta **Txoixo** taldea, emakumezkoetan.



Bergarako Orfeoia jo eta ke aritu zaigu astebukaeran. Ostiralean Elgetako himnoaren aurkezpen kontzetua eskaini zuen Elgetan, Orkestra Sinfoniko eta Elgetako Oskarbi taldearekin batera. Larunbatean, berriz, David Azurza zuzendari berriaren eta Orfeoi Gaztearen aurkezpen ofizialak egin ziren Seminarioko eleizan Bergarako Orfeoia eta Orfeoi Gazteak emandako kontzertuan.

▼ "Tostoiak eta Errellenuak" taldeak amaitu berri du ekaineko 6 egunetan zehar Infernukua taberna eta herriko beste hainbat tokitan grabatzen aritu den **Austin FX-4** bideoa. Orain editaia lanak egingo dituzte.

## ZER EGIN UDAN?

**Uztaila haurren hilabetea da. Opor egunak aurrera doaz eta abuztuaren gurasoekin batera herritik kanpo irten aurretik, lagunekin jolasean pasatzeko hilabetea. Pizinetara, mendira, errekarara... la egun osoa etxetik kanpo igarotzen dute. Uztaileko goizak jolasean pasatzeko aukera ematen dizkiete gaztetxoei Udaleku Irekiak.**


Lehen Udaleku Euskara Batzordeak antolatzen zituen Udaleku Irekien ardura Kikaundi ludotekak hartu zuen orain dela hiru urte. Harrezkero, 3 urtetik 12 urtera bitarteko haurrei uztaileko goiza era dibertigarri batean pasatzeko, hainbat jolas iharduera eskaintzen dizkiete.

Uztailaren 1etik 30era, astelehenetik ostiralera eta goizeko 10etatik ordu 1era bitartean, 257 neska mutikok futboleant, sokatiran, goman, eta beste hainbat jolasetan pasatzen dute denbora. Normalean San Martin ikastetxeko patioan ibiltzen dira, baina noizean behin irteerak ere egiten dituzte: batean Zurrara, bestean autobusa hartu eta Urkulura, Asentziara, Arantzazura edota Usakoko urtegiara. Joan zen asteazkenean, hilak 7, San Fermin eguna, guztiak txuriz jantzi eta kalejira egin zuten.

Udaleku Irekietan hilabetea pasatzea 3.000 pzta. kostatzen zaio haur bakoitzari. Diru horrekin, 25 begiraleren soldatei aurre egiten zaie.

## Uztailean: Udaleku Irekiak

*Kikaundi Ludotekak antolatutako, uztaileko goizak jolasean pasatzeko aukera*



Asteazkenean San Fermin eguna ospatu zuten herritik zehar egindako kalejira batekin, Udalekueetan parte hartzen ari diren txuriz jantzitako 60 bat neska-mutikok.

Kikaundi Ludotekak, Udaleku Irekiak antolatzeaz gain, urtean zehar ikastorduetatik kanpoko jolas iharduerak ere antolatzen ditu Seminarioko lokalean.

3 pertsonak osatzen dute elkarrekin, Udalekueetarako beste begirale batzuen laguntza ere izaten dute.

### ARREGI

**Eraikuntza  
materialeak**

Biltegia Teilerian, Tfnoa: 76 27 93  
Labegaraita Auzoa

**LILURA  
EDERTZE  
INSTITUTUA**  
Abuztuaren zabalik:  
9etatik 13etara.  
Bidekurutzeta, 7  
☎ 76 31 71  
BERGARA

### ITXASMENDI

**Taberna**

Barrenkale 36  
Tfnoa: 76 50 64  
BERGARA

## ZINEA



### PASAJERO 57

OSTIRALA: 22.30.  
LARUNBATA: 22.30.  
IGANDEA: 19.30, 22.15.  
ASTELEHENA: 19.30.

**Estatu Batuak. 1993. 90'.**  
**Zuzendaria: Kevin Hooks. Aktoreak: Wesley Snipes, Bruce Payne, Tom Sizemore eta Alex Datcher. 14 urtez azpikoentzako ez gomendagarria.**

*John Cutter (Wesley Snipes, New Jack City)* modu txarretan maisua den polizi bat dugu eta abioi batean atentatu bat tokatu ezker odozer gauza egiteko kapaz izan daiteke. Dudarik gabe, bidaiariak kontu haundia eduki beharko dute berarekin eta terroristek hobe egingo lukete hurrengoan tren hartzeaz.

## ERAKUSKETAK

▼ **Benita Gallastegi**ren *Euskal Herriko paisajeak* izenburuko margo erakusketa Nahikarin.

▼ **Argazki zaharren** erakusketa ikusi ahal izango da Jubilatuen Egoitzan.

## RTEERA

▼ **Ur-bizitako piraguismo ikastaroak** iragarri ditu Beti-Busti taldeak astebukera honetarako eta hurrengorako, hilak 17 eta 18. Izena emateko 760329 telefonora jo dezakezue.

## O GIA

▼ **Igandea 10:** Ogizun.




### GOARDIAKO FARMAZIAK

- ▼ **Larunbata 10:** Mozos. San Pedro, 4 ☎ 76 12 15.
- ▼ **Igandea 11:** Mozos. San Pedro, 4 ☎ 76 12 15.
- ▼ **Astelehena 12:** Camacho. Oxirondo, 4 ☎ 76 11 74.
- ▼ **Asteartea 13:** Puy. Barrenkale, 25 ☎ 76 16 87.
- ▼ **Asteazkena 14:** Guallar. San Antonio, 5 ☎ 76 11 05.
- ▼ **Osteguna 15:** Mozos. San Pedro, 4 ☎ 76 12 15.
- ▼ **Ostirala 16:** Estella. Matxiategi, 5 ☎ 76 19 63.

## A UKERAN

▼ **Iker Muruamendiaraz** bergarar pelotariak Elgetako 4 t'erdiko pelota txapelketaren kadete finala jokatu du gaur ostirala gaueko 10etatik aurrera Elgetako pelotalekuan.

Txapelketa bikaina egin du Ikerrek eta aurrefinaletan Larra faborito nagusia kanporatu ondoren, gaur Zearra izango du etsai. Reyes Azkoitia Ikerren entrenatzaileak finalean edozer gauza gerta daitekeela adierazi digu baina bergararra momentu onean dagoela eta aurten denboraldi bikaina burutzen ari dela ere gogoratu du.



F  
A  
N  
C  
Y

# FANCY

**GAZTEEN MODA!** Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa; 77 14 24

Paper pintatuak - Pinturak

## A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA  
☎ 79 91 82 ARRASATE

# San Kristobal jaiak

## OSTIRALA 9

**23.00:** **LUHARTZ** taldearekin **dantzaldia** goizaldera arte.

## LARUNBATA 10

**12.00:** **Meza Nagusia.** Ondoren, ibilgailuen **bedeinkapena** eta jarraian **luntxa** jubilatuentzat.

**13.00:** **Dantzari** eta Elorza anaia **trikitilarien** saioa.

**23.00:** **TXINPARTAK** taldeak alaitutako **dantzaldia** goizaldera arte.



Larunbatean, San Kristobal eguna, ibilgailuak bedeinkatuko dira.


## IGANDEA 11

**12.00:** **Meza Nagusia,** eta ondoren kotxeen **bedeinkapena.** Jarraian, Elorza Anaia **trikitilarien** saioa.

## GOMENDIOA

Joan zen astebukaeran parrandan egin ondoren, asteburu honetan lasaiago pasatzeko plana egin dut. Zapatu goizean Iparraldera joango naiz, Errobi ibaia piraguaz jeisteko asmoarekin. laz raftinga praktikatu nuen eta aurten Albina urtegian piraguismo ikastaro batetan ibili naizenez, ba, orain ur bizietan probatu nahi dut. Astebukaera osoa igaroko dut han eta gero, Lesaka gertuan geratzen denez, eta San Ferminak direla eta, agian, parrandatxo bat egitera hurbilduko gara nafar herri polit eta martxosora.

**Iker BEISTEGI,**  
**24 urte**



**Piraguan ibiltzera iparraldera eta gero, Lesakako jaietara**

## E GURALDIA

**Joxe BADIOLA**  
**"ITXUMENDI"**




### Azken egunetan moduan eguzkixa

Joan zan astian ez neban aziertau guztiz, domeka arratsaldian hobera egin zeban arren.

Hau esanda, astebururako ona egingo dabela igartzen dot.

Ipar haizia nola sartu dan, oin, astian bukaeria ona egingo dau. Ostiral, zapatu ta igande, eta martitzenera arte be ona egingo dau. Beraz,

San Kristobalera kotxia bedeinkatzera trankil asko jaoteko aukeria izango da. Martitzenian, berriz, txarrera egingo dau: trumoi batzuk joko ditxu eta gero lanbrua edukiko dogu. Baina gero berriz hobera.



## ETXAGI

**Jatetxea**

Afariak - Bataioak

Jaunartzeak

Eguneko menua

Gosariak - Bazkariak

Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12

## ARDATZA

*Brikolaketa*

Masterreka 4, behea ☎ 76 18 93

- Ateak, zokaloak
- Horma armairuak
- Sarrailak eta manilak
- Koadroen enmarkazioa
- Era guztietako moldurak
  - Apalak
  - Kajoiak

### Adierazpen askatasuna

Beti bezala, betikoek dute arrazoi. Ez du inportantziarik San Martzialeko zuhaitzei 100 mm. baino gehiagoko iltzeak sartzeak. Argazki eta guzti salatu ahal izateak ere ez dio inporta. Azkenean Berrigarar argitaratzen ez dute uzten eta kitto!

Ongia eta zuzentza defendatzen duten jaunek beti dute arrazoi. Azkenean betiko tokian kaleratu beharko dira argazkiak: tabernetan.

Pol-Polean eta Gaztetxean jarrita daude eta gainontzeko tabernetan ere jarriko da.

San Martzial jaiko partaideok, natura eta zuhaitzak arriskuan daude.

ADIERAZPEN ASKATASUNA DENONTZAT.

nahi diegu: Infernukua taberna, La puerta del inglés, Ola Tallerrak, Unión Cerrajera, Musika Eskola, Iñigo Gallastegi, Antxon Epelde eta Bergarako Udala.

Korto honetan honako hauek hartu dute parte: Silvia Mendibil, Amaia Labaien, Asier Altuna, Oihana Gardoki, Amaia Mujika, Miren Urkijo, Karlos Odriozola, Iker Murua, Itsaso Azkarate, Xabi Labaien, Bingen Irizar, Harkaitz Elkoro, Elsa Manso, Paulo Elkoro, Kukuma, Pablo eta Txema, Riki, Josean, Amadeo eta Taun-Taun.

Eta extra modura: Edu, Laura, Isa, Barri, Miren, Koldo, Edurne Iza eta Ignacio Apolaza.

hauetara deitzea besterik ez duela: 76 21 33 edota 76 13 12.

### Begarako Senideak

### Tostoiak eta Errrellenoak

### Begarako EKI

### Eskerrik asko

### Eskertza


Austin FX-4 kortoaren errodajea amaitu ondoren, *Tostoiak eta Errrellenoak* kolektiboko kideok Begarako herriari eta bereziki ondoko lagun eta entitateei errodajea emandako laguntza eskertu

Ohar honen bitartez, SENIDEAK elkarteak San Martzialgo jaietan lagundu zioten pertsona eta talde guztiei eskerrak eman nahi dizkie.

Bestalde, hiru hilabetetik behin, dohaineko aldizkaritxo bat ateratzen du eta bere etxean, lantokian, edo abarrear jaso nahi duenak ondoko telefono

## Tiira ba!

UDA HONETAN...



HAU DA ZURE MARKA:



## Josu Okina

JARDUN ESTILOA!!





## 2.035 milioi pezetako aurrekontuak onartu zituen udalbatzak asteleheneko Plenoan

Astelehenean Kultur Etxean eginiko ez-ohizko plenoan, aurtengo udal aurrekontuari hasierako onarpena eman zitzaion (15 egunetan alegaziorik ez balego behin-betikoa izango litzateke) EAJ eta PSE-EEren aldeko eta HB eta EAren kontrako botoekin. Gobernu Batzordeak 1.800 milioi pta. ko aurrekontua aurkeztu zuen, kantitate honi Mizpirualdeko 176 milioi pta. eta Euskaltegiko 59 milioi pta. gehitu behar zaizkielarik. Gastu garrantzitsuenak honela banatuko liriteke: Pertsonal gastuak (% 28a), Gobernazio eta Hazienda (% 24a), Hirigintza (% 24a), Osasun eta Gizarte Ongizatea (% 4a), Hezkuntza eta Euskara (% 4a), Auzoak (% 3a), Kirola (% 3a) eta Kultura (% 3a).

Herri Batasunak osorako enmendakina aurkeztu zuen baina EAJ eta PSE-EEK kontra botatu zuten eta EA abstenitu egin zen. Enmendakinean jasotzen denez, "zor indizeak (% 21,5ekoa), gehiegizkoa da eta jeitsi ordeztu berriz ere igo egingo da. HBk egoera finantzario ona utzi zion oraingo udal ekipoari, Basck Consulting etxeak bere txostenean agertzen



EAJ eta PSE-EEK atzera bota zuten HBren osorako enmendakina.

*duen bezala. Zor indize hori Udaletxeko obrak sortzen du neurri haundi baten". HBko zinegotziek euskararen egoera aztertu zuten; "aurrekontuaren diru izendapenak gazteleraz jaso ditugu Euskara Hitzarmena sinatu genuenok, bbitzarmenaren filosofia balio gabetuz".*

Victoriano Gallastegi alkateak euskararen kontuan arazoia eman ondoren merkatuarekin utzitako zorra gogoratu zien HBko zinegotzietan, beren proiektua 100 milioi pta.koa zela eta HBK Udala utzi baino lehen onartutakoa 300era iristen zela adieraziz. Alkatearen hitzetan, "gastu korrontea kontrolatu na-

*hi izan da eta Udalaren zorra kontrolagarria da, inbertsioek urtez urte gora edo behera egin dezaketelako". HBk, alkatearen soldata eta Gobernu Batzordearen dietek ez dutela murrizketarik izan erantzun zion.*

Eusko Alkartasunak, Juan Mari Garitano zinegotziaren bitartez, bere desadostasuna azaldu zuen, gogoraraziz Udaletxean burutzen ari diren obrei ere beren oneritzirik ez zietela eman. Garitanok obren finantzaketa aldatzerik zegoen galdetu zuen baina idazkariak kontratu bat sinatuta zegoela gogoratu eta alkateak galdera hori ezegokia zela erantzun zion.

### ALDERDIEN IRITZIAK

#### EAJ: "Herriko beharrezkoak"

"Aurrekontu orekatu eta errealista da. Gastu korrontea kontrolatu nahi izan da eta Udalaren zorra kontrolagarria da, inbertsioek urtez urte gora edo behera egin dezaketelako"

#### PSE-EE: "Gastua kontrolatu da"

"Krisi garai honetan gastua kontrolatzeko esfortzu handia egin da eta horregatik eman diegu geure adostasun aurrekontuei"

#### HB: "Zor indize gehiegizkoa"

"Horregatik aurrekontu proposamena mahai gainean lagatzea proposatu dugu alderdi guztien artean aurrekontu orekatua lortzeko"

#### EA: "Gastuak gora egin du"

"Ez gaude ados gastu publikoak gora egin eta Udaletxeko obrei gure desadostasuna eman genielako"

**IZADI**  
PILI GISASOLA

Osasun eta Dietetikan  
espezializatutako zentrua

Zurradero 2, behea. Tfnoa: 76 58 83

**KONDE**  
PANADEROKUA



Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57



**LIZAR**

**Altzariak**

Dr. Fleming 5, Tfnoa: 76 16 53

### Barnetegietako ikasleentzako laguntzak

Udaleko Euskara Zerbitzuak adierazten du urtean zehar barnetegian euskaraz ikasten jardun dutenek edo uda honetan barru-ikastaroren bat egin nahi dutenek hil honen 15a aurretik aurkeztu behar dituztela beren laguntza eskariak Euskara Zerbitzuaren bulegoan, Irizar Jauregian.

### Argazkilari sarituak

Pol-Pol Argazki Taldeko 4 kide Ordiziako Argazki Lehiaketako protagonista bihurtu dira: Natxo Millanek 2., saria lortu du, Benito Canterok 3.a, Agustin Gurrutxagak akzesit bat eskuratu du eta, azkenik, Dani Santosek "Itzalak" sari berezia irabazi du.

### Bazkari herrikoia Antzuolan

Uztailaren 18an, herriko jaietako domekan, bazkari herrikoia egingo da Plazan 14.30etan. Txartelak 1.000 pta. tan salgai egongo dira Larrea, Surpe eta Ongi-Etorri tabernetan eta Gaztetxean uztailaren 14ra arte.



Musika Eskolako ikasle, irakasle eta gurasoak San Martzialen bilduko dira berri.

## San Martzial Txiki Eguna

*Musika Eskolak jai honen 4. edizioa ospatuko du igandean*

Joan den igandeko juergarekin badirudi zenbaitek ez duela nahiko izan eta azken urteotako ohiturari jarraituz, igandean, uztailak 11, San Martzial Txiki Eguna ospatuko dute Musika Eskolako ikasle, irakasle eta gurasoek. Aurtengoa jai honen laugarren edizioa izango da eta aurrekoetan gertatu den modura egitarau zabala prestatu dute Musika Eskolako lagunek.

Horrela, ikasturteari amaiera ematen dion festa honetan ekitaldi ezberdinak izango dira egun osoan zehar: goizeko 10 t'erdietan

Gazteen Bandak eta trikitilari eta gaiteroek alaitutako kalejira burutuko da; orduerdi beranduago igoera egingo da eta 11 t'erdietan ohizko tute eta mus txapelketak eta futbol partidua jokatuko dira; ordubietan bazkaria egingo dute San Martzialen biltzea espero den 100 lagun inguruk eta bazkalostean, arratsaldeko 4retan, Otxote txapelketa jokatuko da. Arratsaldeko 6etan erromeria izango da "Ibaiak" taldearen eskutik eta amaitzeko, 8etarako, jeitsiera iragarrita dago.



### KORTA-ZAR


Txokolategia

Pintxo eta ogibartekoen espezialitatea

HEMENDIK AURRERA OSTIRALETAN GOIZEKO 9ETATIK ZABALIK

Barrenlale 16, ☎ 76 20 62

### ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
  - ATEAK, etab.
  - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20. 76 11 73  
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

## ZABALETA ERROTULOAK

Mota guztietako errotuloak.  
Fatxadak, eskaparatek...

Amilaga (Gasolinera ondoan) Tfnoa: 76 57 34



Eguzki talde ekolojistak jaietan antolatutako baltsa jeitsiera.

## Deba ibaia aztergai

*Eguzki taldeak antolatutako ihardunaldietan*

Deba bailarako Eguzki talde ekolojistak antolatutako *Deba ibaia bizirik I. Ihardunaldien* barne, larunbatean, uztaileak 10, ibaiaren garbiketa burutuko da goizeko 10etatik aurrera Alzolan. Horrez aparte ostegunean, hilak 15, hitzaldi bat izango da arratsaldeko 7etan Bergarako Kultur Etxean, Iñaki Antigüedad EHU-UPVko irakasleak arroen antolaketa integrala, ibai ertzetako landaretzaren desagerpena, ibai ubidearen kanalizazioak edota kutsadura eta saneamendu plangintzak aztertuko

dituela. Amaitzeko, datorren ostiralean Koiuntura folk taldearen kontzertua izango da gaueko 11etan Pol-Pol tabernan.

Bestalde, Eguzkik idatzi bat bidali dio Udaleko Hirigintza eta Ingurugiro Batzordeari azkenaldian Deba ibaiak jasan dituen aldaketen inguruan, giza-aktibitateen eraginez ibai-ertzetako landaretza naturalaren desagerpena, ibai-ubidearen kanalizazio basatiak, kutsadura edota ibaia arrain ez-autoktonoekin birpopulatzea salatuz.

## Txapa Irratiaren ikastaroa

Atzo hasi eta datorren asteazkenera bitartean Txapa Irratiak irrati ikastaro bat antolatu du Hernaniko Molotov irrati kideen laguntzaz. Ikastaroaren helburu nagusia emisioen kalitatea hobetu eta, bide batez, irratiarekin zerikusia duten hainbat kontzeptu (adierazpen askatasuna, informazioa, etab.) lantzea litzateke. Bertan parte hartzeko interesa duten guztiek Kultur Etxera jo dezakete, goizeko 11etatik ordubatera. Ikastaroa dohain emango da.

## Elgetako zozketa

Larunbatean Elgetan jokaturako Euskadiko IX. Mendiko Txirindulari sarian eginiko zozketan 3.539 zenbakiaren jabeak eskuratuko du lehen saria (bizikleta bat). Hilabate barru sariduna agertuko ez balitz, 1.272 zenbakiak eramango luke saria. Bigarren sariari dagokionez, 217 zenbakiarentzat izango dira zozketatzen ziren 2 urdaiazpikoak (ordezko zenbakia 1.835).

**Aranzabal**

**OIHALAK**

Zubieta, 32

☎ 76 11 50

**ARRASATEARRA**

Gure berezitasuna bazkariak.  
Eguneko menua daukagu.

**Taberna**

Zubiaurre 22,

Tfnoa: 76 20 19

BERGARA



**GAZTELU**

*Burdinaki denda*

Mintegi 1,

Tfnoa: 76 32 48 / 76 34 50

BERGARA

# ZAZPI

**A ze zortzikotea!!**

Zazpi elkarteko lehendakari lanak betetzen dituen Kruz Beitiak azaldu dizkigu elkartearen gora-beherak. Zazpi elkarte sortu aurretik, zazpi pertsonak osatutako lagun talde batek Gure Ametsa elkartean astero afaria egiten zuen. Afari haien ondorioz izan zuten elkarte berri bat egiteko ideia. Honela, zazpi lagun hauek ideia hau jorratu eta 1978ean Zazpi elkarte ireki zuten.

Elkarte irekitzeko orduan, "Musical recreativa" gehigarria ipini behar izan zioten elkarteari. Esan digutenez, honek ez du zerikusirik elkartearen nortasunarekin. Elkarte egiteko baimen eta pape-lak errazago lortu ahal izateko ipini zioten izenari gehigarri hori.

Gaur egun zazpi bazkide hauek zortzi izatera pasatu dira, eta ez dute bazkide kopurua gehitzeko asmorik.

Zortzi bazkide hauen

artean ez dago jubilatuarik. Bazkide nagusienak 56 urte ditu, eta gazteenak 47.

Elkarte honetan, aipatu digutenez, ez da mugimendu haundiegirik egoten. Honen arrazoa bazkide kopuru murrizta da. Bazkideak astean behin elkartzen dira afari bat egiteko, eta honetaz gain, famili arteko bazkari edo afariak izaten dira elkartean egoten diren mugimenduak.

Zazpi elkartean urtean 1.500.080 pzta.ko kaja batzen dute gutxigorabehera. Falta kontutan, ez



Zazpi Elkarte borrotik ikusita.

omen dute kontu berezirik eramaten. Orain arte ez denez falta berezirik somatu, ez dute kontrol berezirik eramaten.

Guzti honekin antzeman daiteke juntak ere

ez duela beste elkartean bezala funtzionatzen. Honen arrazoa diren bazkide kopuru murrizta da.

Zazpi elkarteko bazkideek 2.500 pzta.ko kuota ordaintzen dute hilean, beraz, 30.000 pzta. urtean.

Sukaldean ere denak aritzen dira. Astean egiten duten afari horretan txandaka-txandaka, astean batek gertatzen du jan beharrekoa.

## FITXA TEKNIKOA

**SORTU:** 1978.

**BAZKIDEAK:** 8.

**HELBIDEA:** Koldo Elizalde, 3 behea.

**PRESIDENTEA:** Kruz Beitia.

**ELKARTEAREN EGUNA:** Santa Ana.

**URTEKO KUOTA:** 30.000 pzta.

*Ainboa Lete*

**SANTOS IRRATI-TB**  
ELEKTRO TRESNAK • ARGIZTAPENA

**Zuek**

*Sukalde altzarien erakusketa*

Masterreka, 2 BERGARA ☎ 76 26 10

**LONBIDE**  
**OINETAKOAK**



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 BERGARA

**KIZKUR**



**Ileapaindegia**  
**Solariuma**

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32

**SURPE**  
**Taberna**

Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97  
ANTZUOLA

# Herriko dendariak beren etorkizunaz kezkatuak

*Dendarien elkarteak sortzeko asmoa azaldu dute Herrian hipermerkatu bat zabalduko dela entzun da*



**Tellerixako lurretan hipermerkatu bat jartzeko zurrumurruak zabaltu zirenetik, herriko dendariak beren eskubideak defendatzeko elkarte bat sortzeko asmotan dabiltza. Pasa den astean UNEDen herriko dendari gehienak bildu ziren eta aste honetan zehar gremio bakoitzak (harakinak, okinak ea...) bilerak egin ditu. Bileretatik gremioko ordezkari bat edo bi irtengo dira eta irailaren lehen egunetarako, beste herri batzuetan bezela, gure herriko dendariak elkarte propioa izango dute. Baina hori bai, "inor kanpoan utzi gabe eta beste elkarte batzuetako onena hartuaz, ezer airean ez gelditzeko".**

**H**ipermerkatuak modan daude eta gure inguruan poliki-poliki hedatzen ari dira eta oraingoan, ziurra ez den arren, badirudi herrian hipermerkatu kate multinazional batek interesa duela bere komertzioa gure jartzeko.

Horren aurrean dendariak beraien lanpostuak eta ogibideak arriskuan ikusiz batzen hasi dira "gu orain babes barik gaude eta alde guztietatik egurra ematen digute eta orain herrian denda bandi bat jartzen badigute... akabo. Gainera Estatu Batuetan hipermerkatuen fenomenoak beheruntz doa, ban iker-

keta bat burutu dute eta hipermerkatuetan erosten duten familiek denda txikietan erosten dutenen %20a baino gehiago gastatzen dute gastu superfluoetan" adierazi digute elkartearen bultzatzaileek. Dendariak gure herria guztiz hornituta dagoela uste dute eta horretaz aparte, beraientzat "guk komertzio librearen aur-

ka ez daukagu ezer, baina hipermerkatu horiek enplegu gutxiago sortzen dute eta gainera, baseran Udalei berkalifikazioak direla eta diru gehiago ordaintzen badiete, gero, beste denda batzuek baino zerga gutxiago ordaintzen dute".

Gure ekonomia ere ez dago bere punturik onenean eta dendari txikiak

**"Babes barik gaude eta alde guztietatik egurra ematen digute".**

artean krisi hori nabari da "Estatu Espainiarrean komertzio txiki asko sobran dago. Ekonomi Aktibitatearen Zerga, Hiri Arrendamendu Legea, Zergak, gebiegizko komertzioa dela eta... estututa gaude, eta piska bat gebiago estutzen bagaituzte ito egingo gaituzte. Komertzio txikiari alde guztietatik kentzen diote eta badirudi gu aberatsak garela, baina hori ez da egia eta orain bemen Hipermerkatu bat jartzen badute, hemen-dik lasterrera herriko denden %40a desager daiteke".

**Hipermerkatuak herrietatik kanpo**

Europar, Frantziar, esatebaterako, Hipermerkatuak nekazal gu- neetatik 60 kmtara egon behar dira eta herriko dendari- ek esan digute- nez, hori ez da hemen betetzen: "gure inguruan Ordizian, Olabarrian, Arrasaten... denetarik daukagu eta orain gure herrian izango dugu politiko guztiak, alderdi guztietakoak, ez badira konturatzen horrelako Hipermerkatu bat jartze- ak egin dezakeen minaz. Orain denboraz gaude, denok batzen bagara, Hipermerkatua herrian ez jartzeko eta esango dizut, duela 7 urte, Trin- txerpen, lortu zuten ho- rrelako superfizie handi bat ez jartzea".

Dendari- ek berain jar- duera arautuko duen lege bat faltan botatzen dute "Frantziar debekatua dago, legeak esaten duen portzentaietatik kanpo saltzea debekatua dago eta hortik behera ezin da saldu eta guk hori ez

daukagu. Guk komer- tzioa arautzeko lege on bat behar dugu eta orain aprobatu nahi den Ko- mertzioren Legeak, gu alde batera uzten gaitu eta guk sortuko dugun elkartearen egin behar garrantzitsuena Legea denontzat izatearena da eta ez bakarrik Hiper- merkatu bandientzako".

**Langileekin harremanak**

Dendari txikiek beren langileekin duten harre- manak eta Hipermerka- tuetakoek duten harre- manen artean diskrimi- nazio nabaria antzematen dute: "beraiek langile bati esan diezaiokete «aizu bihar etor zaitez ona 5 etan lanera» eta guk hori



Dendarien ustez komertzioa arautzeko legedia beharrezkoa da.

ezin dezakegu egin. Be- raiek langileen artean hiru maila ezberdin di- tuzte eta langile batzuk praktikan izango bali- ra bezala esplotatzen di- tuzte eta gainera Eusko

Jaurlarizatitak dirua bar- tzen dute eta guk hori ez daukagu. Beraiek lana ez dutenean erregulazioak egin ditzakete eta guk dendari txikiok, nabiz eta lanik izan ez ezin de-

**"Bergaran hipermerkatu bat jartzen badute, herriko denden % 40a desager daiteke".**



148 dendariren sinadurarekin batera idazki bat bidali dute komertziantee- k udaletxera.

zakegu erregulaziorik egin, beraiek guk baino laguntza gehiago dituzte eta orduan, Udalak ez baldin badu egoera aztertzen...".

Baina dendariak ez dute Udalarekin gerra batean sartu nahi, alde-rantziz: "guk politiko guztiei esan nahi diegu aztertzeke Hipermerkatu batek ekarriko dituen kalteak eta denda txikiak itxiko balira, imajina itzazu gure herriko kaleak gauzez ilunetan".

Orain arte dendariekin izandako ekarriketan zehar, Hipermerkatu bat jartzeak beraiendako ekarriko lituzkeen kalteez aritu gara berbetan, baina dendarien Elkartea sortzen denean beste arazo batzuei egin beharko die aurre "kontsumi-

zaileak gure dendetan erosteko animatu beharko ditugu eta guk saltzen dugun beinean gure dendetan barietate gehiago aurkituko dute. Gainera gure dendetan erosten duenak erraztasun gehiago ditu, adibidez alkondara bat erosi nahi duenari nahi dituenak etxera eramaten uzten zaizkio eta joan zaitez Hipermerkatu batetara eta saiatu zaitez alkondarak probatzeko etxera eramaten".

### Era guztietako produktuak

Horretaz aparte, dendarien ustez gure herrian edozein produktu aurki dezakegu eta edozein preziotan "denda bakoitzak bere bezeroak ditu,

batean produktu garestiagoak daude, bestean merkeagoak eta beste denda batean oraindik merkeagoak eta denda batean zerbait ez baldin badago bestean aurkituko duzu. Askotan bezero asko etortzen da guregana eta ez digu berba egiten eta presupuesto bat egiten badiogu eta garestia dela pentsatzen bazaio, esan dezala eta agian beste presupuesto bat egin diezaiokegu".

Aste honetan zehar gremio ezberdinetako dendariak bilerak egin dituzte eta dendarien elkartea sortzeko lehen pausuak hasi dira ematen: "barakinak, jan dendetakoak, ferreterietakoak ea... bildu dira eta gremio bakoitzetik bat edo bi ordezkari izango dira

elkartean. Gure asmoa hemedik 15 egunera sortzea izango litzateke, baina abuztua hor dago eta bestalde gauzak ondo lotu behar dira... Seguruen irailaren lehen egunetarako elkartea martxan izango dugu".

Elkartea sortu ondoren hainbat ate joteko asmoa dute eta instituzioei zera eskatuko diete: "lehenik eta behin hipermerkatu horiek frenatzea eta gure esfortzuak «mamu» horiek gelditzeko balio ez badu, pentsatu, kontsumitzaileok gehiago ordaindu beharko duzuela, zeren ez baita konpententziarik izango eta nahi dutena egin ahal izango dute".

## Udalari egindako eskakizuna eta honen jarrera

Herriko dendariak U-NEDen egindako bileraren ondoren 148 dendarik idatzi bat sinatu zuten eta, ondoren, Udalera bidali zuten alderdi politikoek aztertzeke. Idatzian dendariak zera adierazten dute: "gure kezka adierazi nahi dugu multinazional batek Udalera jo duelako gure herrian hipermerkatu bat non jar daitekeen galdetuz eta honen, Udalak, Telleriako zorua aproposa izan daitekeela esan dielako".

BERRIGARAK iturri one-tik jakin izan duenez multinazional hori Super BM-UNIALCO izango litzateke. Honek hasiera batean Herri-lagunak kalean dagoen etxabeen (Bankinter ondoren, lehen Garitano garraioak zegoen lokalean) supermerkatua jarri nahi izan zuen baina antza denez nego-

ziaketak eten egin dira eta multinazionalak begi onez ikusten ditu Telleriako soruak.

Dendariak Udalari bidalitako idatziaren hurrengo le-rronetan zera irakur daiteke "gure herriak, 15 mila biztanlerekin bere beharrak aseta ditu eta kontutan hartu behar da Eroskik praktikan baduela herri barruan Hipermerkatu bat dituen 6 denden metro karratuak batzen baditugu". Idatziaren azken parrafoan zera adierazten dute dendariak: "gure herriak orain arte komertzio bizi eta aberatsa izan du eta penagarria izango litzateke udal erabaki bategatik guzti hori hankaz gora botatzea. Baina badugu itxaropena Udalak, eta bertako indar politiko guztiak, gure kezkak kontutan hartuko dituztela eta ildo horretatik jarraituz, neurriak hartuko dituztela




Telleriaren inguruan Zerrajerako pabiloi zaharren atzekaldean lursail honetan eraikiko litzateke supermerkatua.

gure herriko dendak ez desagertzeko".

Bestalde Victoriano Gallastegi, alkatearekin ere izan gara eta berak adierazi digunez "hipermerkatuari buruz ofizialki ez dugu eskaerarik izan, horri buruz izan dira kontsultak baina ez dago ezer ofizialik. Gainera urbanistikoki ere ez da estudio-rik egin". Alkateari galdetu diogu herrian posible izango litzatekeen hipermerkatu bat egitea eta ondorengo erantzun digu: "Eskaera ofizial bat

egon arte guk ezin dezakegu erantzun. Zurrumurrak besterik ez dira eta zerbait ofiziala dagoenean, aztertuko dugu. Egin, egin, noski egin daitekeela. Baina beti ere proiektu bat dagoenean eta gauza asko aztertu ondoren. Komertziantee-ekin egin duten elkar-teari buruz esango nuke pertsonalki ondo iruditzen zaidala eta guk beraien kez- kak kontutan izango ditugu, denda txiki- ei esker jende asko bizi da eta".



**PUBLIZITATEA**

**JARDUN elkarteak  
93-94 ikasturtean  
trikitixa eta  
panderoa  
ikasteko  
aukera  
ematen  
dizu.**



**IZEN-EMATEA:  
JARDUN elkarteak.  
Masterreka 13. ☎ 76 08 19.**

**ANTOLATZAILEA**  
JARDUN Elkarteak

**LAGUNTZAILEAK**  
Bergarako  
Udala

Gipuzkoako  
Foru Aldundia







## ASTEKO EMAITZAK

- BILDURBAREK LAM-ALTZASU.
- ARLOTEAK-MONGATXURRA.
- OGIZUN-AMILOTX.
- A ZE FLAXA-PAOK DE SAN JUAN.

## FINAL ERDIAK

- 1-1 BILDURBAREK LAM-MONGATXURRA.
- 0-0 Astelehena 19.30.
- 1-1 ARLOTEAK-MONGATXURRA.
- 4-0 Asteartea 19.30.

## BETERANOEN FINALA

- BETI ONA-TXIPIRON
- Ostirala 19.30.



**BETI ONA**



**TXIPIRON**



**OGIZUN**

## KOMENTARIOA

**Joseba LARRAÑAGA**  
(Arloteak taldeko jokalaria)



"Final laurdenak oso-oso parekatuak gertatu dira. Partidu batean izan ezik, beste hiruretan penalti jaurtiketetan erabaki dira finalerdietara pasatuko diren taldeak. Emozioa azken momentura arte esaten dena. Kontuak-kontu nik uste nituenak pasatu dira hurrengo fasera eta orain, finalerdietan, Bildurbarek LAM eta A Ze Flaxa dira nire favorito nagusiak. Txapelketa, berriz, Bildurbarek LAMek eramango duela uste dut, talde indartsuena da eta. Hala ere edozer gauza gerta daiteke".

## GOLEGILEAK

- 4 gol: • I. Etxeberria (Mongatxurra).
- Josu Arana (Bildurbarek LAM).
- Juan Luis Arriola (Arloteak).
- 3 gol: • Manu Diaz (Mongatxurra).
- J.L. Etxaniz (Bildurbarek).
- R. Agirrezabal (Bildurbarek).
- I. Unzurrunzaga (A Ze Flaxa).
- Mikel Azkarate (Amilotx).
- Zangitu (Mongatxurra).
- 2 gol: • Carlos Rodríguez (Amilotx).
- Paco Vallejos (A Ze Flaxa).



**MANU DIAZ**



**FS**  
foto istema

Appéniz

**ARGAZKIAK  
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50

**Zertan gastatuko zenuke  
Udaleko dirua?**



**Bernardino Magdaleno**  
60 urte, jubilatua

Sanitatea eta hijienerari emango nioke lehentasuna. Hiri-segurtasuna ere beharrezkoa da.



**Nerea Arana**  
17 urte, ikaslea

Gazteei diru gehiago emango nieke eta ez nuke udaletxeko obran horrenbeste gastatuko.



**Irene Agirre**  
20 urte, langilea

Hizkuntzetan eta kulturari, obretan nahikoa gastatu dute eta. Euskara, kirola eta kultura indartu.



**Patxi Barrutia**  
35 urte, langilea

Ekintza sozialetan batez ere: jubilatua, gazteak, kultura, kirola... eta herria ere pixka bat txukundu.

**ETXE-  
-AUNDI**

**Negozio bazkariak  
Ezkontzak  
Banketeak**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56  
OÑATI

**BERGARA**

**Karrozeria**

Txapa - Pintura

Zubieta, 46 BERGARA  
☎ 76 12 31

**Mujika**

**Jantxidenda**

Barrenkale 1, Tfnoa: 76 29 91

**BILBAO  
ASEGURUAK**

**IÑIGO JUARISTI**


Artekale, 18 b  
Tfnoa eta faxa: 76 08 71 BERGARA

**MARGA**

**MODA san pedro, 22**

**ADI BERGARA ETA BAILARAKOOK**

Orain MARGA modaetxeak denda/biltegia zabaldu du Tokiederren (Mintegi 1). Egun-eguneko jantziak!! eta... a ze prezioak!!  
20 urte dituzun horrentzako zein gehitxoago dituzunarentzat. Guztientzat du MARGA modaetxeak zerbait.  
Eta gogoan hartu... a ze prezioak!!  
**HILAREN 12AN IREKIKO DUGU.**  
Ordutegia: 17.00-21.00.



**ZATOZ DENDA BERRIRA!!!**



## Sanferminetara

Oporretan nago uztailan eta zeharo alpertuta. Astelehenean eskatu zidaten Berrigarakoek zerbait idazteko, osteguna iritsi da eta ezer ez dut oraindik idatzi. Bost minutu barru banoa Iruñara. Sanferminak. Urteroko zitara ezin falta. Baina aurretik zerbait idatzi behar.

Iruñako Sanferminak mundialak dira. Jaiak gustoko ditugunontzat bikainak eta mundialak baita, munduko hainbeste tokitan ezagunak direlako ere. Entzierroak zezenketek baino ospe haundiagoa dute. Bada bien artean diferentziarik. Entzierroan, iruinsemek beren bitzta arriskuan jartzen dute zezenen adarren aurrean korrika eginez. Arratsaldean aldiz, zezen berori espainiar toreroren batek torturatu egingo du.

Bestalde, badira Nafarroan beste Sanfermin batzuk, hain ezagunak ez badira ere mundialak direnak. Bazetozen orain dela 30 bat urte bi europar Iruñara; Lesakan kotxea izorratu zitzaizen eta bertako Sanferminetan gelditu ziren. Orduetik urtero etortzen dira, baina Lesakara. Beno, lagunak zain dira eta bagoaz; etzi, hau irakurtzean izango da oraindik Sanfermina baina seguraski baita burukomina.

Jon Altuna



## % 90 baino gehiago

Ekainaren 17tik 20ra munduko herri ezberdinetako 150 bat langile, guztiok elkar-entzuketan arituak, bildu ginen EEBBetako Filadelfian. Judutarrak, palestinarrak, ingelesak, irlandarrak, eskoziarrak, amerikarrak, etabar. Euskal Herritik ere han izan ginen bi lagun. Sektore guztiak eta erligio eta kolore ezberdinetakoak izan arren, lankidetzaren giroan aritu ginen.

Han bildu gintuen gaia zera izan zen: gaur egungo gizartearen egoera aztertu eta langileriaren eginkizuna egoera honen aurrean. Garbi ikusi genuen gaurko gizarte kapitalista amildegira doala eta planeta osoa suntsituko duela ez badiogu erremediorik jartzen. Langileok gara irtenbidea eman ahal diogunok.

Munduko pertsona gehienak, % 90 baino gehiago, langileak gara eta izatez, jatorriz, denok gara oso azkarrak, bihotz onekoak eta kooperatiboak gure irrazionaleria baztertu ezker. Horretarako erabiltzen dugu elkar-entzuketara.

Zertan datza irrazionaleria hori? Munduari begiratzea besterik ez dago, langabeziak, goseak, heriotzak, elkarrekiko minak eta abarrek ez dute bihotz ona, elkartasuna eta adimena adierazten.

Langileok inolako zapalketarik gabeko gizartea lortzeko ahalmena dugu.

Has gaitezen!!

Xabier Azkarate

## MUSIKA ESKOLA

### 93-94 IKASTURTERAKO MATRIKULAK

- Uztailak 30era arte izena emateko epea zabalik.
  - Astelehenetik ostiralera.
  - Goizeko 10etatik 13etara.
  - 5 URTETIK GORAKOENTZAT
  - Helduentzako ikastaro bereziak.
  - Informazio gehiago: Musika Eskola.
- Espoloia z/g. ☎ 76 57 80.**

## anezka

Oihalak eta lentzerioa

**BEHERAPENAK!!**

Espoloia 8, Tfnoa: 76 59 25

## FERNANDEZ



**Oihal puskak  
Oihalak**

San Antonio 3  
Tfnoa: 76 22 93

Ibargarai 2  
Tfnoa: 76 53 22

## Beheko Taberna

*Menestra eta konejoa  
dira gure berezitasunak.*

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

## LARREA

### TABERNA

Kale Barren 17  
ANTZUOLA

## LARRAÑAGA eta ZUBIA

### Banatzailleak

Errioxako ardoak, olioak,  
esnea, lejiak...

Martokua 32, tfnoa: 764594

Taberna Kafetegia  
**EHIZTARIAK**  
**LOS CAZADORES**  
Kafea da gure berezitasuna  
Zubieta 26, BERGARA

## Aldoka Maldoka TABERNA

Kruz Gallastegi, BERGARA



DEBA  
**GARAIA**

INMUEBLE ETA FINANTZA  
AGENTZIA


Arrasate / Bergara / Elgoibar

T. Aranzadi, 2 behea. ☎ 76 21 80  
76 06 37

## Mari Carmen ARRAINDEGIA

Arrain freskoak,  
izoztuak eta mariskoak

Kruz Gallastegi  
☎ 76 15 90 / 76 40 73



**JAUJA KIROLAK**  
Irizar 2, Tfnoa: 76 14 95



### □ Pelota kiniela pelota sailarentzat

Ez zen asmatzailerik egon Retegi eta Galarzaren arteko finalaren **Berrigara Pelota Kinielan**. Azken emaitza asmatu zuten zenbaitek baina erdiko emaitzarekin (11 eta 2 Retegiren alde) huts egin zuten guztiek. Azkenean behetik hurbiltzen zenik ere ez zegoenez (11-0 edota 11-1), saritan eman beharrekoa, 182.320 pta. hain zuzen ere, Bergara K.E.ko pelota sailari ematea erabaki du **Berrigarak**. Pelota sailaren adostasunarekin, diru horren zati bat (90.000 pta.) Berrigarak argitaratu nahi duen "*Bergarako Pelotaren historia*" biltzeko erabaliko da. Argazkian, **Reyes Azkoitia** txekea jasotzen **Jose Anjel Mikeo JARDUNeko** idazkariaren eskutik. Badirudi Retegi II.ak zorianak eta eskerrak jasotzen jarraituko duela...




### □ Alicanten

**Nerea Mendizabal** Ariznoa Gimnasia Erritmiko Taldeko gimnasta bihar, uztailak 10, Alicanten amaituko den Espainiako Eskola Arteko Txapelketan parte hartzen izan da aste honetan. Berak eta Gipuzkoako beste 3 gimnastak Euskadi ordezkatu dute (Bizkaia eta Arabatik ez da gimnastarik joan) eta **Eva Arevalillo** bergararra izan dute entrenatzaile. Ea orogarritarako dominarik ekartzen duten...

## □ Omenaldia

PNVko Bergarako Uri Batzarrak omenaldia eskainiko dio igandean **Jokin Inzari**. Eguerdiko 12etan meza izango da Monja Zaharretan Umore Ona abesbatzak lagunduta eta ordubatean dantza saioa, Batzoki aurrean. Ondoren, EBBko presidentea den Xabier Arzallusek hitz batzuk esango ditu Batzokian eta jarraian, bazkaria izango da. Jokin Inza 1924.eko otsailaren 18an jaio zen Masterrekan. Gerra ostean, gure herrialdearen, EAJko Bergarako buru zela hamaika lan egin zuen, eta horien artean, partiduaren alde. Horregatik Martuteneko gartzelan pasatu behar izan zituen bi urte. Gartzelatik irten eta Zaragoza,artzelona eta Frantzia lehenengo eta Venezuelan gero, alderdikideei eta erbesteratuei laguntzeko diru batze eta antolaketa lanak burutu zituen. Venezuelako Euskadi Irratiaren sorrera bultzatu zuen. Gaur egun Donostian bizi da.




## □ Forma onean

Begarako jubilatutako forma onean dira eta horren lekuko Legazpin jokatuak **Gipuzkoako Egoitzen Arteko Txapelketan** lortutako emaitzak dituzue. Ezkerretik eskumara: Jose Agirre eta Honorio Sampietro (mus txapelkunak), Hilario Etxeberria eta Anjel Aperribai (tute txapelkunak) eta Juan Zuazolazigorraga, Jose Mari Uribe Etxeberria eta Jose Arakistain (tokan bigarrenak).


## Zertan dihardute ba?

LARRAITZ URIBESALGO



15 urteko neskatila honek Eusko Jaurlaritzako Urruzuno literatur lehiaketa irabazi du "Askatasunaren negarra" lanari esker (Begarako lehiaketan ere saritua), irailerako Europara bidaiatzeko bat irabaziz.

JON ANDONI URISABEL



21 urteko bergarar honek igandean Aretxabaletan egindako margo lehiaketa irabazi zuen 50.000 pta. eta trofeoa eskuratuz. Mikel Araiztegi bergararra 3. sailkatu zen (20.000 eta trofeoa).

**iRUDI**  
Erlojudenda  
Bitxitegia

San Pedro 11  
☎ 76 51 65



**ETXEBERRIA**

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65  
BERGARA

## Telebista zala-ta

Basarritar bati ekarri zetsen telebista bat. Aren poza!

Programa ederrak ikusi naixan, asizan botoieri ikutzen martxan ipintzeko.

Etzan, baiña, ezer ikusten. Botoiak alemanez izendatuta zegozen. Tekniko erdeldun batek diñotsa:

- Vd. tenga en cuenta que EIN, en aleman, significa EN MARCHA y AUS es apagado.

- Sí, sí ahora yo entiendo: EIN quiere desir EINSENDIDO y AUS, AUSCURAS.

## Hijo bastardo


Eibarko kuadrilla batekuak ziran biak. Bata, gizon jakitxuna eta estudio aundixak eindakua. Bestia, "brotxa gordako" pintoria. Egun baten eta diskuziñuan ari zirala, esan naixan estudiosoari familiako "ondria" zala, au beste au, baiña, esan zetsan:

- Ya lo creo, tú eres el hijo bastardo de la familia.

Orduan, asarre, gure intelektualak:

- I, txotxo, esaixak konfunditxu gero Goyaren pintzelak ire brotxa txarrixekin!

*Pedro Zelaia*



San Ferminetan gaudela eta, zezenketei buruzko orain dela 20 urteko notizia batekin gatozkizue oraingo honetan. Hori ilustratzeko, aurtengo jaietan Bergaran izandako txekorketan ateratako argazki bat (goikoa).

## CURRO CHAVES ADARKADAZ ZAURITUA

Orain dela hiru egun adierazi genizuen Curro Chavesek pikadore eta guztiko zekorketa batean toreatuko zuela Gasteizen. Bada, hara nola diren gauzak: pena handiz adierazi beharrean gaude Curro Chaves ezingo dela Gasteizen izan.

Joan zen osteguenan, Arturo Anchustegui (Curro Chaves), «Paquirri» bere lagunarekin batera Tuterara abiatu zen bertan Juan Antonio Choperaren bi zekor hiltzeko asmotan. Ostiralean telegrama bat jaso nuen: "Atzo Tuteran Curro Chavesi adarkada bat eman zion zezenak ondestean. Ez oso larria. Gasteizkoa atzeratuta".

La Voz de España. 1973ko uztailak 5. Bikuña.

Curro Chaves orain Bergaran bizi den zekorketari bat da, hiru urtean jarraian pikadore eta guztiko zekorketak toreatzen ari dena. Aurtengo urtean, 7 bider toreatu du eta guztietan arrakasta handiz jardun du.

La Voz de España. Uztailak 12. Bikuña.

Asier Madinabeitia, Josune Iñarra eta Ane Goenagak hemerrotekatik bildutako notiziak



**IRAKASLE ESKOLA**  
**E s k o r i a t z a**  
**G i p u z k o a**

**Magisterio Eskola honek zera jakinerazten du:**

**1993-94 ikasturterako aurreinskripzio-epa zabalik dagoela.**

**ESPEZIALITATEAK:**

- Haur-Eskola
- Euskal Filologia
- Ingles Filologia

**INFORMAZIOA:**

**Irakasle Eskola**  
**☎ 943 / 71 41 57**

# EGUZBITZA

**Erretegia ☎ 76 56 03**

**SARRERAKOAK:**

- Entsalada mistoa
  - Arrain-zopa
  - Barazki-nahaskia
  - Makailo-tortilla
  - Txorizo eta urdaiazpikoa
- OKELA eta ARRAINAK:**
- Txuleta piparrekin
  - Saiheskia
  - Eskalope berezia
  - Legatz frijitua
  - Makailo frijitua piparrekin

**EDARIAK:**

- Sagardoa
- Etxeko ardoa

**POSTREA eta KAFEA**

**GUZTIA: 2.200 pzta.**

**EGUNEKO MENUA: 900 pzta.**

**BEREZITASUNAK:**

- Arrainak eta okela plantxan
- Ehiza.




**Zumelaga**

**JATETXEA**

**ADRIAN ARRESE-IGOR**

San Antonio 5  
BERGARA  
☎ 76 20 21



**ARGAZKI**

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66



## ***GALDE DEBALDE***

**EUGENIO GARAI**

"Errege Etxea" izena du San Martzial elizaren alboan dagoen etxetxoak. Horixe zen azkenengo Galde Debaldeko erantzun zuzena.

**EUGENIO GARAI**k erantzun zuzena jarri du eta bera dugu aste honetako irabazlea. Berarentzat, **ZUBIKUAK** emandako saria.

**ZORIONAK !!**

**Eta besteok segi asmatzen! Animo!!**

# **HERRAN ETXEA**

**Sukaldeko altzariak**

Matxiategi, 4. 76 37 53

**Elektragailuak, TB,  
bideoak, HIFI  
aparailuak.**

Matxiategi, 3. 76 12 22




**JANTZIDENDA**

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16



## HERRAN ETXEA

Sukaldeko altzariak  
Matxiategi, 4. 76 37 53



Elektragailuak,  
TB, bideoak,  
HIFI aparailuak.  
Matxiategi, 3. 76 12 22

Hurrengo Galde Debaldeko saria  
HERRAN ETXEAK emango du.

EUGENIO GARAİK jaso du aste  
honetan ZUBIKUAK emandako saria.

# Galde Debalde

### Aste honetako galdera:

Badoa aurrerantz Xacobeo'93 urtea, hainbat ahaleginekin berreskuratu eta berriz martxan jarri nahi den Europa mailako bide erlijioso-kultural-turistikoa. Dagoeneko badira mila eta berrehun urte Konpostelarako bidea sortu zela eta bertarako peregrinazioak martxan jarri zirela, biderik zaharrena, Iparraldekoa edo Kostakoa, Bergaratik hurbil pasatzen zelarik. Bergaratik bertatik ere aipatutako bide horren bariante bat pasatzen zen, peregrinoak bere bidea eginez hain Xakobeoak diren santuei jasotako eliza eta baselizatxoak aurkitzen zituelarik. Elizatxo horietako bat Angiozarko Azkuneta auzoan dagoen "San Martin de Tours"ena da, peregrinoen pasoen oroitzapena ere gordetzen delarik. Beste eliza Xakobeo bat ere bada Bergaran, Santiago berari dedikaturikoa, auzo horretan datorren 25ean, Santiago egunean, auzoko jaiak ospatuko dituztelarik.

### Zein auzotako jaiak dira Santiagoak?



izena

abizena

telefonoa

**OHARRA:** Asmatzailerik azalduko ez balitz, hurrengo GALDE DEBALDEN bi sari egongo lirateke



#### IV. Olinpiadak

Astelehenean jarri zen martxan, 12 kuadrilen partaide-tzarekin, Olinpiada Herrikoien IV. edizioa. Datozen egunotan honako proba hauek izango dira: hockey-balukon (astelehenean), mendi bizikleta-mahai-jokoak (asteartean), boleibol-bandera (asteazkenean), hockey-balukon (ostegunean) eta mahai-jokoak-ginkana (ostiralean).

#### Finalean

Iker Muruamendiaraz Bergara K.E.ko pelotari gazteak Elgetako 4.terdiko pelota txapelketaren kadete finala jokatu du Zearraren aurka gaur, gaueko 10etan, Elgetako frontoian.

## Euskadiko Kirol Eskalada txapelketa larunbatean Bergaran

Udal Kirol Zerbitzuak eta Pol-Pol Mendizale Taldeak antolatuta, larunbatean Euskadiko Kirol Eskalada Txapelketa jokatu da gure herrian laugarren aldiz. Izenematea 9.30-10.15etara bitartean egongo da zabalik Labegaraietako Kiroldegian; eskalatzailiek 1.000 pta. ordaindu beharko dituzte parte hartu ahal izateko eta horren truke kamiseta bat eta janari poltsa jasoko dituzte. Probak 10.30etan hasiko dira Kiroldegian bertan eta arratsaldeko 5.30etan Plazan jokatu diren finalerako onenak sailkatuko dira.

Honako hau Euskadiko Txapelketaren bigarren (lehen a Elgoibarren jokatu zen) eta azken proba izango da etorriko diren 40 partaide ingururen artean hango irabaz-



Argozkian, Aitor Payros Labegaraietako rokodromoan.


leak (Fernando Martinez eta Iosune Bereziartu) izango direla espero da. Bergararren artean, Beatriz Jimenez baja izango da lesio batengatik eta mutiletan oraingoz Aitor Payrosek (orain 2 urte hirugarren) bakarrik baeztatu du parte hartuko duela.

Probak 700.000 pta. inguruko aurrekontua du

eta sariak honela banatuko dira: mutiletan, lehen zortzirik; 40.000 pta. eta trofeoa txapel-dunarentzat, 30.000 eta trofeoa, 25.000, 20.000, 15.000, 10.000, 5.000 eta beste 5.000 zortzigarrenarentzat. Nesketan, 30.000 pta. eta trofeoa, 20.000 eta trofeoa eta 10.000 pta. jasoko dute lehen hirurek.

## Euskadiko Txapelketa

Bergara Igeri Elkarteak emaitza onak lortu zituen Anoetan jokatuak Euskadiko Txapelketan. Juniorretan, Jon Jauregi lehen izan zen, 200 m. estilotan, 3.a 200 libretan eta 4.a 400 libretan; Gorka Gonzalez, 2.a 100 brazan eta 4.a 100 libretan eta Aitor Alberdi 2.a 400 libretan eta 3.a 100 libretan. Txapelketa Absolutuetan, Inigo Gallastegi 5. sailkatu zen 50 eta 100 bizkarreran, Gonzalez 6. 50 eta 100 brazan, Unai Alberdi 5. 400 estilotan eta Jauregi 3. 200 estilotan. Taldeka, juniorretan 3. sailkatu ziren eta absolutuetan 6.ak (Gipuzkoako lehenak eta 2.ak).



**MEMESA**

**IRIMO**

**SKF**

**platinum**

**Arrasate 79 42 22**

**Artxabaleta**



***Bergarako txoferrak San Kristobalen. 1925.***

**B**ai, umeak kenduta, txoferrak dira kamioi gain horretan ageri diren guztiak. Eta, dozenerdiren bat kenduta, garai hartako txofer denak hor omen dira. Izan ere, orduan txofer guztiak joaten omen ziren San Kristobalera: goizean meza entzun han bertan, eta gero lagunarteko bazkaria.

Kamioiak ere badu bere historia: U.S.A. markakoa da, lehenengo mundu gerran erabilia. Ameriketara ez bueltatzearren hemen saldu omen ziren halakoak dexente. Bat baino gehiago erosi omen ziren Bergaran ere. Hemen agertzen dena Bergarako lehenengo kamioietakoa izango ei da. Marzelino Arregik erosi zuen eta 1992ra arte erabili zuen. Bere matrikula, BI-3953.

Atzean gari-soloa dutela, hor ikusten direnak ondorengoak dira, atzeko ilaretatik hasita, ezkerretik eskumara:

**1. ilaran:** Pedro Mendibil, Zabaleta, Bixente Laspiur, Bixente Muruamendiuaraz, Bittor Gantxegi (Mixo), Josetxo Mujika eta ezezaguna.

**2. ilaran:** Murgoitio, Canalejas, Imanol Zabaleta (mutikoa), ezezaguna, Jose Mari Intxausti, Enrike Manso, ezezaguna, Kalixto Juaristi, Aurelio Gonzalez, Jabier Etxaniz, Bittor Gallastegi, ezezaguna, ezezaguna, ezezaguna, ezezaguna eta Urbano Lopez.

**3. ilaran:** Patxi Deskarga, Esteban Ezenarro, ezezaguna, Kandido Mujika, Jabier Ubillos eta Galarza.

**4. ilaran:** Iñaki Arana, Migel Idarreta, Jose Manuel Martinez, Doroteo Gallastegi (lau mutikoak), Jose Maria Irigoien (jarrita) eta Martzelino Agirrezendoia (zintzilik).

**Lurrean zutik:** Jose Fernandez.

***Estepan Plazaola***

***Argazkia: Luzio Arregi***

**Zure  
konfidantzako  
denda**



**Tfnoa: 79 13 55 - 79 27 27**

**ARRASATE**

**ETXEBIZITZA**

Garajea hartuko nuke alokairuan Toki Ederren edota Espoloian  
☎ 76 52 45.

Jacan udarako apartamentua alokatzen da.  
☎ 76 43 98.

Garajea salgai Ozaetan  
☎ 76 56 94.

Pisua salgai San Lorenzo 1ean.  
☎ 76 27 35.

Garajea salgai Bolun (1.200.000)  
☎ 76 25 38

Etxea hartuko genuke alokairuan.  
☎ 21 34 60.

**DENETARIK**

Paseorako bizikleta (bolero) salgai. Oso egoera onean.  
☎ 76 49 56.

SEAT Ibiza bat salgai. 3 urte, 34.000 km.  
☎ 76 35 14.

ZEUS errepideko bizikleta salgai. 56 neurrikoa, pin-tatu berria. Gurbil berriak.  
69.500 pzta.. ☎ 76 11 21.

Karrerako bizikleta bat erosiko nuke. ☎ 76 18 78.

Master System II kontsola salgai. ☎ 76 03 31.

Citroen AX SS-AH salgai. Berritua. ☎ 78 33 09.

Kaminoko bizikleta bat erosiko nuke. ☎ 76 18 78.

SUZUKI DR-BIG 74 cc salgai. ☎ 76 50 67.

Pastor-aleman txakurkumak salgai. ☎ 76 55 59.

Cocker beltz bat oparitu nuke. 5 urte, arra.  
☎ 76 57 67.

Kanpin denda haundia salgai. 45.000 pzta.  
☎ 76 26 73.

Kitarra klaseak hartuko nituzke. ☎ 76 45 16.

Trialeko motorra salgai. Merlin 350 zk. ☎ 76 07 04.

Nintendo bat salgai. 6.000 pta. Bi mando.  
☎ 76 58 93 (Unai).

Ume kotxe bat salgai. ☎ 76 02 00.

MOBYLETTE CADY motor bat salgai.  
☎ 76 54 73 (lan orduetan).

Motorrean ibiltzeko kasako integrala erosiko nuke. ☎ 76 10 04.

Bigarren eskuko bizikleta estatiko bat erosiko nuke  
☎ 76 50 58.

Transformatutako Vantte furgoneta salgai. Ohe, sukalde, izozkalilu, mahai, iturri eta guzti.  
☎ 79 28 81.

TV GAME 2.600 bideo kontsola salgai: 224 joku eta mando eta guzti. 4.500 pzta.  
☎ 76 54 12 / 76 13 14.

3 berogailu salgai: keroseko, butanozkoa eta elektrikoa. ☎ 78 05 72.

OPEL CORSA City, BIAK salgai. ☎ 92-6201918 (Gorka). Lan orduetan.

Doberman arrazako txakur emea salgai. 40.000 pzta. ☎ 76 57 67.

Ilea eta bizarra moztera joango nintzateke etxetik (Jacin). ☎ 76 41 98.

Nintendo bat salgai (S. Mario Bros) ☎ 76 39 34.

Renault Super 5 kotxea salgai. BI-AL matrikula.  
☎ 76 52 90.

**LANA**

OHOko klaseak emango nituzke uztailan.  
☎ 76 19 59.

Bi lagunek propaganda etxetik banatuko lukete. ☎ 76 39 86 (Iban).

Etxeak garbitu edota pertsonak zainduko nituzke. ☎ 76 50 63 (Marijo).

Emakumezko batek haurrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 36 06 (Marisol).

Euskarazko klaseak ematen ditut. Maila guztiak. ☎ 70 12 71.

Ingelesezko klaseak ematen ditut. ☎ 76 26 63.

OHO eta BBBko klase partikularrak ematen ditut. ☎ 76 42 08 (Nerea).

Ingelesezko klaseak ematen ditut. ☎ 76 31 36.

**Hildakoak**

Aste honetan ezin abal izan dugu hildakoen informazioa jaso. Datorren astean izango duzue hildakoen berri.

**Jaiotakoak**


Iker Blas Gomez ekainak 27  
Maialen Leturia Eraña uztailak 2

**AUTOPULLMANS ARABA**  
**Autobusak**

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR ☎ 76 55 70





OKENDO  
**KIROLAK**

**Ezagutu  
Udaberri-Udako  
moda!!**

Maalako Arrabala, 13. Tfnoa: 79 92 76 ARRASATE

